

## 2021eko proiektu deialdia : animaziozko film laburra

Akitania Berriarekin abiatu 2021-2023ko Helburu eta Baliabide Kontratuaren kariatara, 2021ean, ÔCtele eta Kanaldude telebistek animaziozko film labur batentzako proiektu deialdi bat proposatzen dute.

### Proiektu-deialdiaren bururatzea : 2021eko irailaren 30a

Txostenak telebista kateek aztertuko dituzte, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzorde batekin. ÔCtele eta Kanaldude engaiatuko dira **animaziozko film baten aurre-erosketan, orotara 20 000€-ko ekarpena eginez** (telebista kate bakoitzak 10 000€) eta beharrez industria-ekarpen bat eginez (proiektuaren beharren arabera zehaztekoa). Proiektu eramaileei azkarki aholkatzen zaie hautagarritasun irizpideak kontutan hartzea.

### PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateko ordezkariak eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa berantenez 2021eko urri bukaeran egingen da.

## **HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK**

GENEROA : Animaziozko film laburrak

HAUTAGAIK :

Proiektuek gutenez ondoko irizpide bat bete behar dute:

- . Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua da eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak)
- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du
- Proiektuak kultur harreman azkarra du Akitania Berriarekin; izan lurraldeko ezaugarri kultural, historiko, sozial edo ekonomikoekin.

TEMATIKAK : Aske.

IRAUPENA : Gehienik 30 minutu

HIZKUNTZA :

Proiektua bukatzerakoan, Òctelerentzat okzitanierazko bertsiio bat igorriko zaio eta Kanalduderi berriz euskarazko bertsiio bat (euskara batuan). Bi bertsiioen egiteko gastuak produkzio aurrekontuan sartzekoak dira.

BESTE IRIZPIDEAK :

Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu egingen die :

- Proiektuak kalitatezkoak izatea : proposatu gaiaren egokitasuna, gidoiaren kalitatea, zuzendaritzaren orijinaltasuna eta unibertso grafikoa.
- Produkzio eta banaketa estrategia
- 2023ko urtarriletik goiti hedatzeko prest izatea
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.
- Proiektuek CNC eta Akiatania Berria eskualdearen diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak).

Serie proiektuak ez dira aztertuak izanen.

## **PROIEKTUEN AZTERKETA**

Txostenak frantsesez aurkeztuak izan behar dira. Beharrez, gidoiko elkarrizketak euskaraz edo okzitazieraz izan daitezke.

Proiektuak 2021eko irailaren 30a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) ondoko helbideetara : [loic@kanaldude.eus](mailto:loic@kanaldude.eus) eta [mlavit@octele.com](mailto:mlavit@octele.com)

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

**Txostenean, ondoko elementuak agertu beharko dira :**

### **Zati artistikoa :**

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua, erabiliko den animazio teknika...); filmaketa eta postproduzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren sinpsia
- Autorearen edo zuzendariaren xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Gidoia
- Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko.
- Elementu bisualak : ikerketa grafikoak, pertsonai eta dekoratuen aurkezpena, story-board, animatikak
- Aurrekontu zehatza
- Finantzamendu-plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz
- Autoreen eta film-egileen CVa
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen aurkezpena.

### **Zati administratiboa :**

- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua

### **Kontaktuak :**

ÒCtele  
Marie Lavit  
[mlavit@octele.com](mailto:mlavit@octele.com)

KANALDUDE  
Loïc Legrand  
[loic@kanaldude.eus](mailto:loic@kanaldude.eus)